EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

AUDIO BANAKETA DIGITALA DANTE PROTOKOLOEN BIDEZ

ESP.: ELPV-1500-21

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria – Gasteiz
Tel.: 945 00 40 00 • Fax: 945 13 54 06 • www.legebiltzarra.eus

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

AUDIO BANAKETA DIGITALA DANTE PROTOKOLOEN BIDEZ

1 XEDEA 1

2 LANEN NONDIK NORAKOAK 1

3 ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK 3

4 KONTSIDERAZIOAK, BETEKIZUNAK ETA EPEAK 11

5 ESKAINTZA AURKEZTEA 14

6 BALORAZIOA EGITEKO ETA BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK 16

7 GEHIENEKO AURREKONTUA 17

8 PRESTAZIOA ORDAINTZEA 18

9 EGIKARITZE BALDINTZAK 18

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria – Gasteiz

Tel.: 945 00 40 00 • Fax: 945 13 54 06 • www.legebiltzarra.eus

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

1 XEDEA

Eusko Legebiltzarra-Parlamento Vasco Instituzioak premia dauka sortutako audioak egoitza parlamentarioko guneetatik banatzeko (osoko bilkuren aretoa, batzorde- eta ponentzia-aretoak, prentsa-aretoak, Tomas Moro aretoa) eta hedabideei eskaintzeko, kalitate handiko emaitzak lortzeko behar diren kommutazioak eginez horretarako.

Orain dauden audio-sistemak analogikoak dira eta hainbat motatakoak (leku txikietarako eta hitzaldi-aretoetarako sistema txikiak, eta publikoarekin egindako ekitaldiak ere, non mikrofono, nahasgailu, prozesadore, anplifikadore eta PCen arteko konexioak egin behar diren). Tradizionalki, horrek esan nahi zuen kable analogiko luzeak bota behar zirela, maneiatzeko pisu eta tamaina handia dutenak eta aldi bakoitzean gailu bakar batera bideratutako seinale-mota bakarrerako balio dutenak.

Agiri honen xedea da irizpide eta preskripzio tekniko batzuk zehaztea, Eusko Legebiltzarrean dauden audio estereoko sistema analogiko guztiak –jatorrizkoa eta itzulitakoa– Dante teknologian oinarritutako sistema digitaletara migratzeko.

Dante IP sareko teknologia estandarrean oinarrituta dago eta gai da kanal-kopuru handia maneiatzeko kalitate handiarekin eta latentzia baxuarekin. Halaber, erredundantziarako aukera ematen du, fidagarritasuna izugarri handia izan dadin.

Dante sistemarekin Gigabit Ethernet sare informatiko kudeagarri batekin ordeztuko litzateke instalazio analogikoa, posible eginez Ethernet kableatuaren bidez audio-kanal asko banatzea modu erraz batean, kalitate ezin hobeko audio-seinaleak igorri ahal izateko, sistema analogiko batek izan ditzakeen interferentzia, moteltze eta tentsio-jaitsierarik gabe.

Sistema honekin konexio guztiak software bidez administratuko dira eta, horrela, bideratzeak azkarrak eta fidagarriak izango dira. Gailu guztiek sare bera partekatuko dutenez, seinaleak edozein gailuren artean igorri ahal izango dira, berdin izango da non dauden kokaturik.

2 LANEN NONDIK NORAKOAK

Eusko Legebiltzarrak audio estereo balantzeatua banatzen du, jatorrizkoa eta itzulitakoa.

Oraingo soluziotik abiatuta, aldatu egin beharko dira oraingo instalazioak eta horien ordez Dante protokoloetan oinarritutako beste berri batzuk ezarri; halaber, orain audio-sistema orokorraren barruan ez dagoen instalazioren bat ere integratuko da. Egin beharreko instalazioak aurreikusiko ditu egokiro funtzionatzeko beharrezkoak diren alderdi guztiak.

Gorabeheraren bat dagoenean banaketa-*switch* bat ordezkatu ahal izateko, proposamenak barne hartuko du ekipo honetarako unitate bat, gutxienez, erreserba gisa. Hala eta guztiz ere, lizitatzaileak ekipo edo kableatu gehigarriak ipini ahal izango ditu, sistemaren erredundantzia handitzeko.

Asmoa da ikus-entzunezko seinaleak sortu edo banatzen diren Instituzioko gela eta areto guztiak elkarren artean lotuta egotea. Horretarako, 3. solairuko teknika-gelan egongo da banaketa-zentroa.

Gaur egun, honako areto hauetan atzeman beharko da (sarrera) itzulitako audioa eta jatorrizkoa:

- Osoko bilkuren aretoa
- Tomas Moro aretoa
- Prentsa-aretoa
- Sarrerako hall/atondoa
- Irrati-setak: mantentze-kabina
- Bozeramaileen Batzarraren aretoa
- Harrera-ekitaldien aretoa
- 1., 2. eta 3. batzorde-aretoak
- 1. ponentzia-aretoa

Eta irteerako seinalea (helmuga), Eusko legebiltzarreko beste gela batzuetan bilkuren jarraipena egiteko zein jatorrizko audioa eta itzulitakoa bidaltzeko honako gune hauetara:

- Prentsa idatziaren aretoa (kazetariak)
- TBen aretoa
- Prentsa-aretoa
- Tomas Moro aretoa
- Osoko bilkuren aretoa (kazetarien eskailera ondoan)
- Sarrerako hall/atondoa
- Irrati-setak: mantentze-kabina
- Prentsarentzako palkoak
- Harrera-ekitaldien aretoa
- Bozeramaileen Batzarraren aretoa
- 1., 2. eta 3. batzorde-aretoak
- 1. ponentzia-aretoa

Horrez gain, audio-banaketarako maleta eramangarri bi eskainiko dira; horietako bakoitzak bi sarrera-kanal eta 24 irteera-kanal izango ditu.

Audio-harguneak integratzeko garaian alderdi estetikoak kontuan hartu beharko dira. Elementu berriak bastidoreen gainean mekanizatuta egongo dira, edo racketan muntatuta, kasuaren arabera.

Kableatu berri guztia eta ekipoak behar bezala identifikatuta eta dokumentatuta egon beharko dira. Areto bakoitzean konektatutako audio-ekipoen kableatua saneatuta, antolatuta eta behar bezala etiketatuta egon beharko da.

Ordezkatu beharreko elementuak eta kableatua desinstalatu eta eraman egingo dira, eta horiek utzitako edozein aztarna ezabatzeko behar diren elementuak ipiniko dira.

Martxan entregatuko da, "giltza eskuan", prestazio guztiekin, eta dokumentu honetan azaltzen diren espezifikazio teknikoak bete beharko ditu. Hori dela-eta, elementu guztiak, behar diren kable, software eta hardwarearekin, barne hartu beharko ditu, eta behar bezala instalatu, programatu eta

konfiguratzeko behar den material osagarri guztia ere. Honako hauei dagozkien lan guztiak sartuko dira: kanalizazio eta kable berriak hornitzea eta ipintzea, eta lehendik daudenak kentzea ere, eta instalazio berria egiteko beharrezko obra zibila.

Obrak barne hartuko ditu kendutako hondakinen kudeaketaren kostuak.

Eskainitako ekipoek softwarea edo firmwarea eguneratzeko lizentziak behar badituzte, berariaz adierazi beharko da memorian, lizentzia mota eta dagokion ekipoa edo sistema adierazita. Esleipendunak, gainera, kontratua esleitu ondoren entregatu beharko duen bere proposamena osatzen duten elementuen aurrekontu unitarioko partida gisa jasoko ditu lizentzia horien prezio unitarioak (4 urterako).

3 ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK

3.1 Instalazioaren eskakizunen azalpena

Proposamena prestatzeko garaian, lizitatzaileak kontuan izango du instituzioak, adierazi den bezala, jatorrizko eta itzulitako audioa kudeatzen duela, eta eskuragarri egon beharko dela ondoren aipatzen diren esparru guztietan.

Lehendik dauden guneak eta instalazio berrirako beharrizanak aipatzen dira. Erantsita doan dokumentazio grafikoan (dwg eta pdf) horietako bakoitzaren kokapena adierazten da.

3.1.1 Beheko solairua

1) Osoko bilkuren aretoa.

Egoera batzuetan, eta ekitaldi berezietarako, mikrofono osagarriak instalatu behar dira eta seinale hori 2. solairuan instalatutako audio-mahaira igorri behar da.

Hargune-kopurua .....sarrera 2 eta irteera 2

2) Tomas Moro aretoa

Areto honetan honako hauek daude: Bosch hitzaldi-sistema bat, atrilean jartzeko kablerik gabeko mikrofono bi, kablerik gabeko eskuko mikrofono bi eta ordenagailuak ponentzietan aurkezpenak eta bideo-emanaldiak egiteko.

Aretoan erabiltzeko dagoen pantailan instituzioak sortutako seinalea ere ematen da, audio bietan, jatorrizkoan edo itzulitakoan.

Audio-banagailu analogiko bat dago, elikatu beharko dena.

Behar diren harguneen kopura.....sarrera 2 eta irteera 2
Eskakizuna .....Ethernet banaketa-sarerako konexioa

3) Prentsa-aretoa, adierazpenak.

Areto honetan ekoitzitako audioa banaketa-sisteman integratu beharko da. Areto honetan honako hauek daude: mahaiko 5 mikrofono, atrilean jartzeko 2 eta kablerik gabeko bi mikrofono, audio-banaketarako sistema dutenak. Horiez gain, aretoko prentsa-besaulki bakoitzean audio-hargune bat dago (16, guztira) eta beste 4 prentsa-oholtzan.

Audio-hautagailu bat egongo da, instituzioan ekoitzitako audio oro aretoan eman ahal izateko.

Behar diren harguneen kopura.....sarrera 2 eta irteera 2
Eskakizuna .....Ethernet banaketa-sarerako konexioa

4) Prentsa idatziaren aretoa.

24 audio-hautagailu egongo dira aretoan instalatuta, hedabideek erabiltzeko, eta ekoitzitako audioetako edozein aukeratu ahal izango da.

Behar diren haguneen kopurua .....24 hautagailu
Eskakizuna .....Ethernet banaketa-sarerako konexioa

Beste aretoetan sortutako audioetako edozein (jatorrizkoa eta itzulitakoa) hautatu ahal izango du pertsona bakoitzak postu horietatik, XLR3-M harguneen bidez. Horretarako, aretoa hautatzeko aukera emango duen kontrol-sistema intuitibo eta erraz bat izan behar du.

5) Prentsa-aretoa, TBak.

3 audio-hautagailu egongo dira. Beharrezkoak dira aretoan aritzen diren telebistei audioa emateko, eta ekoitzitako audioetako edozein hautatu ahal izango dute.

Audio-hautagailuen kopurua..... 3 hautagailu

Beste aretoetan sortutako audioetako edozein (jatorrizkoa eta itzulitakoa) hautatu ahal izango du pertsona bakoitzak postu horietatik, XLR3-M harguneen bidez. Horretarako, aretoa hautatzeko aukera emango duen kontrol-sistema intuitibo eta erraz bat izan behar du.

6) Photocalla.

Seinale berria da. Kokapen honetan sortutako seinalea sisteman integratu beharko da. Seinalea banatzeko maletetako bat erabiliko da hedabideei audio-seinalea emateko.

Behar diren harguneen kopura.....sarrera 1 eta irteera 1

3.1.2 Lehenengo solairua

7) Irratien halla (Mantentze-kabina)

Noizean behin, irrati-setak antolatzen dira kokapen honetan; hori dela eta, audioak izan behar dituzte grabatu eta kateei banatu ahal izateko.

Mantentze-zerbitzuaren irrati-kabinan harguneak ipiniko dira, geroago banaketa-maleta baten bidez banatu ahal izateko.

Audio-harguneen kopurua.....sarrera 2 eta irteera 2

3.1.3 Bigarren solairua

8) Prentsarentzako palkoak.

Osoko bilkuren jarraipena egitera datorren prentsak audioak izan behar ditu, grabatzeko.

Gaur egun audio-banagailu bat dago. Dagoen banagailua elikatuko da.

Audio-harguneen kopurua.....sarrera 1 eta irteera 1

9) Bozeramaileen Batzarraren aretoa.

Sisteman integratu beharko den aretoa da. Areto horretan ekoitzitako audioa banatu behar da.

Gaur egun, Philips hitzaldi-sistema dago, eta mikrofonoak eta interpretearentzako postu bat du, sisteman integratu beharko dena.

Hargune-kopurua .....sarrera 2 eta irteera 2
Eskakizuna .....Ethernet banaketa-sarerako konexioa

10) Harrera-ekitaldien aretoa

Sisteman integratu beharko den aretoa da. Areto honetan ekoitzitako audioa banatu behar da eta 2. solairuko errealizazio-gelako audio-mahaiarekin konektatuta egon behar da, egindako audioak grabazio- eta banaketa-sisteman sartzeko.

Aretoan bertan banatu beharko dira prentsarentzako audioak, maletetako bat erabiliz. Beste seinale bat 2. solairuko errealizazio-kontrolera iristen da, eraikineko gainerako tokietara banatzeko.

Hargune-kopurua .....sarrera 2 eta irteera 2
Eskakizuna .....Ethernet banaketa-sarerako konexioa

11) Ponentzien eta Tomas Moro aretoei dagokien errealizazio-gela.

Gela honetatik egiten da Ponentzien 1. aretoko eta Tomas Moro aretoko ekitaldien errealizazioa.

Areto horretan ekoitzitako audioen banaketarako sarbidea izan beharko du, bai Ponentzien 1. Aretoan,ai Tomas Moro aretoan.

Eskakizuna .....Ethernet banaketa-sarerako konexioa

12) Zeinu-hizkuntzako itzulpenerako gunea:

Toki horretan zeinu-hizkuntzako interpretaziorako seta instalatuko da. Beraz, Legebiltzarreko gainerako lekuetan sortutako audio-seinale guztiak jaso beharko ditu.

Hargune-kopurua ..... 2 sarrera

13) Osoko bilkuren aretoari eta 3. batzorde-aretoari dagokien errealizazio-gela

Audio-mahaia dago, Yamaha markakoa, 01V96i[1] modeloa, AES/EBU formatuko sarrera edo irteerako 8 kanaleko eta 24 biteko erresoluzioa duen MY8-AE zabaltze-txartelarekin, interfaz txartela erabiliz sisteman integratu beharko dena. Audio-mahai honetatik seinalea bidali behar da edozein gunetara, eta gelan bertan audio-banagailu bat egon behar da, zenbait elementuri estaldura eman ahal izateko.

Eskakizuna .....Ethernet banaketa-sarerako konexioa

3.1.4 Hirugarren solairua

14) 1., 2. eta 3. batzorde-aretoak.

[1] https://es.yamaha.com/es/products/proaudio/mixers/01v96i/specs.html

Areto hauetan Shure aurreinstalazioa dago, osatu eta sisteman integratu beharko dena. Horietako bakoitzak 25 edo 27 mikrofono eta interprete-postu 2 ditu, baita kablerik gabeko mikrofono bat ere.

Kontua da batzuetan itzulpen bikoitza egiten dela (adibidez, frantses-euskara edo ingeles-euskara), eta hiru hizkuntzetako edozein (jatorrizkoa, euskara eta beste hizkuntza bat) grabatu eta banatzeko aukera egon beharko da.

Areto bakoitzeko prentsarentzako gunean, audio-hargunea duten 18 besaulkietan, beharrezkoa izango da hiru hizkuntzak hautatzeko aukerak izatea. Besaulki horiei dagokienez, audio-premiak hiru hizkuntzetan bete beharko dira. Proposatzen den postu bakoitzean XL3-H konexioa eta minijacka ipiniko dira; kendu egingo dira lehendik dauden hargune guztiak eta kentzen diren harguneetan estalki bat edo itxitura-sistema bat, memoria teknikoan deskribatu beharko dena, ezarriko da.

Lizitatzaileak, "Proposatutako sistema" atalaren barruan, besaulkietara audioa banatzeko proposamena deskribatuko du eta aurkeztutako gainerako eskaintzei dagokienez baloratuko da.

Eskakizuna .....Ethernet banaketa-sarerako konexioa
Audio-hautagailuak (3 hizkuntza)..... 3 aretoko

15) 1. ponentzia-aretoa

Areto honetan sortutako audioa sisteman integratu beharko da.

Eskakizuna .....Ethernet banaketa-sarerako konexioa
Hargune-kopurua .....sarrera 2 eta irteera 2

3.1.5 Beste eskakizun batzuk

Audio-banaketarako maleta eramangarria

Dante audio banaketa eta integrazio berriari laguntzeko, beharrezkoa izango da audio-banaketarako maleta bi izatea, bakoitzak 24 irteera eta sarrera bi dituela, gutxienez.

Dagoen ordularia integratzea

Denbora funtsezkoa da Dante sisteman eta Legebiltzarreko ikus-entzunezko gainerako produkzio-ekipoekin sinkronizatuta egon behar da. Informazio gisa, gaur egun denbora-kodeak sortzen dituen GPS erloju bat dago, ESE markako ES-101 modeloa. https://www.ese-web.com/101.htm

Ekipoen erredundantzia

Hasteko, lizitatzaileak proposatzen duen sistemak behar duenaz gain, *switch* osagarri bat beharko da, besteren bat hondatzen bada, hura ordezteko. Hori dela eta, ahalegina egingo da erabili beharreko *switch* guztiek ezaugarri berberak izan ditzaten.

Baloratuko dira lizitatzailearen iritziz audio-sistemaren fidagarritasuna hobetzeko behar diren beste ekipo, sistema edo instalazioak.

3.2 Hornitu beharreko ekipoen betekizunak

Ekipo guztiak behar bezala etiketatuta egongo dira aurrealdean, esleipendunak proposatutako *rack*-diagrametan eta -altxatuetan adierazitako identifikazio-kodeei jarraituz; horrela, erraz identifikatu ahal izango dira ekipoak, *rackak*, lotutako konexio-panelak eta instalazioaren barruko edozein elementu instalazioari lotutako planimetriarekin.

Proposamen hau Eusko Legebiltzarrak baliozkotu beharko du. Etiketak egiteko, teknika elektronikoen bidez serigrafiatutako markatzaile iraunkor eta ezabaezinak erabiliko dira, ez eskuz idatzitakoak.

3.2.1 Sare-arkitektura

Lizitatzaileak instituzioan sortzen den audioa jaso eta banatzeko egokiena iruditzen zaion sare-arkitektura diseinatu eta proposatu beharko du.

Gibagit Ethernet *switch* kudeagarriak erabili beharko dira, PoE+ elikadurarekin, eta kableatua CAT 6A motakoa izango da, halogenorik gabea.

Sarea Dante audio-banaketarako erabiliko da soil-soilik eta ez da fisikoki integratuko Eusko Legebiltzarreko datu-sarearen beste topologia batekin.

3.2.2 Audio-matrizeak

Audio-matrizea Legebiltzarraren egoitzako 3. solairuko teknika-gelan egongo da. Dante sarean 128 sarrera eta audio digitaleko beste horrenbeste irteera kudeatzeko gai den matrize bat hornitu eta integratuko da, seinaleen kudeaketa eta bideraketa ahalbidetzeko.

Dante Controler softwarerako esleitutako izenei dagokienez, ekipoak, seinaleen jatorria eta/edo helmuga argi eta garbi adierazten dituzten izenak aukeratuko dira.

3.2.3 Banaketa-*switchak*

Switchak Gigabit – Ethernet PoE+ kudeagarriak izango dira eta lizitatzailearen proposamenaren arabera kudeatuko dituzten sarrera eta irteeren arabera beharko diren RJ45 konexioak izango dituzte, eta SFP portu 2 ere, gutxienez. *Switchak* EEE (Energy Efficient Ethernet) badira, aukera hori desgaitu egin beharko da, sinkronizazio-gatazkak edo mozketak ekiditeko.

Adierazi den bezala, ahalegina egingo da horietan guztietan uniformetasuna mantentzeko, eta ekipo osagarri bat eskainiko da, erreserbarako.

3.2.4 Kodegailuak eta audio-harguneak

Sistemaren sarrerak eta irteerak txasis independenteetan integratuta egongo dira, eta horiek esparruetako bakoitzean kokatuko dira, aurretik adierazitakoaren arabera. XLR3 konexio-panelak izango dituzte.

Aurretik deskribatutako esparru horietan jatorrizko audioa eta itzulitakoa hartzeko behar den elektronika integratu beharko da, XLR3-H audio-harguneen bidez (audio-matrizetik aparteko 2 sarrera) eta horiek instalatu eta sisteman integratuko dira.

Matrizean behar diren bideratzeak egingo dira, definitutako puntu bakoitzetik audioa hartzeko edo jatorrizko audioa zein itzulitakoa modu indibidual eta independentean hautatu ahal izateko, XLR-3M harguneen bidez.

3.2.5 Instalazioa eta kableatua

3.2.5.1 Sareko kableatua

Datuak igortzeko kable balantzeatua S/FT motakoa izango da, 6 A kategoriakoa, halogenorik gabea, eta beharrezkoa bada zuntza erabiltzea, OM4 modu anitzekoa izango da, halogenorik gabea.

Kableatuaren instalazioak honako hauek barne hartuko ditu:

- Kablea jartzea babes-hodian, erretiluan edo horma, sabai edo zoladuran sartutako kanalizazioan.
- Ekipo, konexio-panel edo -kaxetara konektatzea (konektore, osagarri eta material txikiaren zati proportzionala barne).
- Kableak etiketatzea mutur bietan eta, orokorrean, eskuragarri dauden lekuetan (konexio- edo erregistro-kaxak). Seinaleztapen-etiketa iraunkor eta ezabaezinak erabiliko dira, UNEX-18 motakoak edo baliokideak. Ezein kasutan ez dira onartuko eskuz idatzitako etiketak. Etiketak kableari estu lotuta egon behar dira, eta kabletik erraz ez irristatzeko moduan itsatsiko dira. Eusko Legebiltzarrak onetsi beharko ditu erabiltzeko proposatuko diren identifikazio-kodeak.

3.2.5.2 Ahots- eta datu-harguneak

Esleipendunaren erantzukizuna izango da instalatutako ekipo guztiak kontrolatzeko eta kudeatzeko beharrezkoak diren datu-konexioak egitea, eta instalazio horiek egiteko behar diren kable-konexioak ere, baita kableatu egituratuaren lineak ikus-entzunezkoen konexio-kaxetara konektatzea ere.

Esleipendunak datu-kablea eraman beharko du sare-harguneak dituzten A/V konexio-kaxetara, eta kablea konektorera mekanizatuko da. Sareko puntu guztiak ziurtatu beharko dira, baita erreserbakoak ere.

3.2.5.3 Instalazio elektrikoa

Esleipendunaren erantzukizuna izango dira A/V ekipoen konexioak, babesak eta kableatu elektrikoa, oraingo instalazioan horretarako aurreikusitako guneetatik ikus-entzunezkoen konexio-kaxetarainoko kableatu elektrikoa eta konexioak. Kable hori dagokion konektorera mekanizatzea esleipendunaren ardura izango da.

Rack bakoitzaren kontsumora egokitutako magnetotermikoak instalatuko dira *rack* guztietan; horrez gain, diferentzial superimmunizatuak instalatu beharko dira. Azpimarratzen da ezen, zerbait instalatu behar bada (armairuak, koadro elektrikoak, etengailu diferentzialak, magnetotermikoak, EAO eta abar), Tentsio Baxuko Erregelamendu Elektroteknikoa betez egin beharko dela beti, Industria arloko aldaketa eta gidalerroei jarraiki.

Behar izanez gero, diferentzialak D motakoak eta superimmunizatuak izango dira, babesten dituzten elementuak nolakoak diren kontuan hartuta. 3 eroaleko korronte-harguneak instalatuko dira, lur isolatura konektatuta, 240 VCAkoak *rack* bakoitzean.

Ekipoen *rack* bakoitzak nahikoa korronte-hargune izango du instalatutako ekipoak edo etorkizuneko instalazio baterako diseinatutako ekipoak behar duen elikadura-kable bakoitzeko korronte-hargune bat emateko. Horrez gain, gutxienez bi hargune libre utziko dira.

3.2.5.4 *Rackak*

Racken banaketaren diseinua, bereizketa-ekipo eta -elementu guztiekin (modulu itsuak), euskarriekin (erretiluak), lizitatzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioaren zati gisa entregatuko da.

Beharrezko diren ekipoetarako *rackak* instalatuko dira. Nolanahi ere, 19"-ko zabalerako eta % 15eko gaindimentsionamenduarekin aurreikusitako altuera-unitateetako normalizatuak izango dira. Muntaketa-errei normalizatuak izango dituzte, bai aurrealdean, bai atzealdean (hori beharrezkoa bada tamainagatik edo pisuagatik), eta osorik metalez egindakoak izango dira, panel desmuntagarriekin.

Armairu barruan *schuko* motako korronte-oinarriak instalatuko dira, ekipo guztiak elikatzeko behar diren haina gehi, gutxienez, bi oinarri libre, epe labur eta ertainerako beharrizanei egokituak (gaindimentsionamendua eta eskalagarritasuna).

Osagarri guztiak irispide errazeko posizio batean muntatuta egongo dira. *Racka* behar bezala aireztatuta egongo da *rackaren* barneko tenperatura 30°C-tik behera mantentzeko. Horretarako izango dituzten haizagailuak isilak izango dira ikus-entzunezko sistemen erabiltzaileen sarbidetik gertu badaude. Aireztapen-sistema hau tenperaturaren arabera aktibatuko da, 30°C-tik gora dagoenean.

Racketako elementu guztiak irisgarriak izango dira *Rackaren* beraren aurreko edo atzeko aldetik, inguruko beste elementu batzuk eragotzi gabe egiaztatu eta mantentzeko. Zabalerari eta hondoari dagokienez, gutxienez 800 x 800 cm-koak izango dira, eta hala eskatzen duten *rack* formatuko zerbitzari motako ekipoak ostatatzen badira, hondoa 1000 cm-koa izango da. *Rack* bakoitza behar bezala identifikatuko da.

Arau orokor gisa, honela antolatuko dira konexio-panel guztiak: seinale-iturriak (ekipoen irteerak) ilara-pare bakoitzaren goiko lerroan geratuko dira, eta helmugak (ekipoetarako sarrerak) ilara-pare

bakoitzaren beheko ilaran geratuko dira, espazio-baldintzak direla-eta eskuragarri dauden panelak ahalik eta gehien aprobetxatu behar direnean izan ezik. Panelek identifikazio-tira bana izango dute konektore-ilara bakoitzerako, non konektore bakoitzerako identifikazio-kode ezabaezin bat markatuko den. Kode hori sistemaren "as built" diagrametan islatuta geratu beharko da. Konektoreak era sekuentzialean etiketatuko dira, panelaren ezkerretik eskuinera.

Kableak era ordenatu eta logikoan antolatuko dira *racken* barruan, funtzioaren arabera eta garraiatzen duten seinale-motaren arabera multzokatuta. Unex motako briden edo baliokideen bidez lotuta egongo dira, piloak sortzeko helburuarekin, gero *racketako* muntaga bertikaletan finkatzeko. Ezin izango da kablerik geratu ekipotik zuzenean eskegita. Maila desberdinetako seinaleak garraiatzen dituzten kable-multzoen artean 10 cm-ko tartea egongo da, gutxienez, interferentziak eta/edo diafonia ekiditeko.

4 KONTSIDERAZIOAK, BETEKIZUNAK ETA EPEAK

4.1 Egikaritze-epeak

Eskaintzek instalazioa gauzatzeko eta entregatzeko gehieneko epearen konpromisoa jaso beharko dute.

Enpresek plangintza-proposamen bat aurkeztuko dute, lanak egiteko aurreikusitako egunen kopurua adierazita. Zuinketa-akta izenpetzean, instalazioa entregatzeko data jasoko da, lizitatzailea bere proposamenean adierazitako egunen edo dataren arabera. Atzerapenen ondoriozko zigorrak jarri behar izanez gero, hori izango da kontuan hartu beharreko data. Edonola ere, instalazioak irailaren 15a baino lehen egina egon behar du.

Lanak bilkura-aldian zehar egiten badira, ostegunetan eta bi ostiraletik batean osoko bilkura dago eta ezin izango da inolako lanik egin. Alderdi hori kontuan hartu beharko da epearen konpromisoa zehazteko orduan.

Lanegun gisa aurreikusitako egunetan, instituzioaren jarduerarekin bateraezinezko gerta daitezkeen lanak eten egin ahal izango dira halako jarduerak dirauen bitartean, lan parlamentarioan ahalik eta eragin txikiena izan dezan. Eten horiek dokumentatu egingo dira eta, horien arabera, instalazioa entregatzeko aurreikusitako data aldatu ahal izango da.

4.2 Bisita instalazioetara

Interesa duten enpresek bisitatu ahal izango dituzte instalazioak zalantzak argitzeko eta egungo instalazioa ezagutzeko. Bisita 2021eko ekainaren 8an egingo da. Bertaratu nahi izanez gero, Legebiltzarreko Mantentze Zerbitzuarekin jarri beharko duzue harremanetan (telefonoa: 945004290; posta elektronikoa: mantenimendu@legebiltzarra.eus), bisita behar bezala antolatzeko, are gehiago COVID-19a dela-eta gaur egun dagoen egoera kontuan hartuta.

Jakinaren gainean egoteko bai iragarkiaz bai kontratuari buruzko beste informazio batzuez, gomendatzen dugu kontratura harpidetzea kontratatzailearen profilean, egunean-egunean jakitun egote aldera lizitazio honen gaineko informazioaz.

4.3 Kudeaketa prebentiboa

Eusko Legebiltzarrak izendatu ahal izango du teknikari bat, haren izenean segurtasuna eta osasuna koordinatzeko edo kudeaketa prebentiboa egiteko lanak egin ditzan. Teknikari hori arduratuko da dokumentazioa eskatzeaz eta agiri honen xede diren obretako segurtasunari eta osasunari segimendu orokorra egiteaz.

Nolanahi ere, esleipendunak Eusko Legebiltzarrari edo horren ordezkariari eman beharko dizkio segurtasun- eta osasun-neurriak betetzen direla bermatzeko behar den informazioa, eta adierazten zaizkion neurriak hartu beharko ditu.

4.4 Bermea

Lehiaketa honen xede den ekipamendu guztiak 4 urteko bermea izango du. Eskainitako instalazioak ezinbestez lau urteko bermea izango du, lehiaketa honetan eskainitako ekipo eta programen mantentzea Eusko Legebiltzarraren egoitzan "in situ" egitea barne.

Epe horretan, esleipendunak konpromisoa hartzen du hornitu eta egikaritutako ekipo, elementu eta obra-unitate guztien elementu guztiak (mekanikoak, elektrikoak eta/edo elektronikoak) ordezteko, Eusko Legebiltzarrari kosturik eragin gabe, baldin eta fabrikazio- edo instalazio-akatsei egozteko moduko irregulartasunak badituzte funtzionamenduan, operazioan edo exekuzioan.

Halaber, beharrezkoak diren *software*aren eta *f-irmware*aren eguneraketak egiteaz arduratuko da, instalatutako ekipoen prestazioak eguneratuta izateko berme-aldiaren azken egunean. Berme-aldia bukatzen denean hori egiten ez bada, Legebiltzarrak esleipendunari kobratuko dio aldi horretan egin ez diren beharrezko eguneraketen kargua.

Laguntza-zerbitzuak zortzi ordutik beherako konpontze-denbora bermatu beharko du matxuraren abisua jasotzen denetik, 8x5 modalitatean (8 ordu egunean, Euskadiko Autonomia Erkidegoko lanegunetan). Hori guztia berariaz erantsiko da eskaintzan, eta zerbitzu hori emateko erabiliko diren bitartekoak (materialak, gizatiarrak eta antolaketakoak) adieraziko dira, bai eta haien kokapena ere. Zerbitzu hori hirugarren enpresa bati azpikontratatu behar bazaio, nahitaez haren izena eta kokapena ere zehaztuko dira.

Berme-aldia zenbatzen hasiko da instalazioaren jasotze-aktaren datatik aurrera.

Esleipendunaren kontura egongo dira eta eskaintza ekonomikoaren barruan sartuko dira laguntza teknikoko langileetatik eratorritako gastu guztiak: joan-etorriak, dietak, garraio-kostuak eta aseguruak, erabili beharreko materialak, instrumentazioa, neurtze-ekipamenduak, dokumentazioa, mantentze- eta konpontze-stocka, euskarria eta hirugarrenen jarduerak (fabrikatzailea edo ordezkaritza).

Nahitaez, eskaintzan Legebiltzarraren egoitzan bertan egingo den mantentze-zerbitzuaren oinarri izango diren baliabide teknikoak ez ezik, giza baliabideak, antolaketakoak eta bestelakoak ere xeheki deskribatuko dira, eta hori zerbitzuak iraungo dituen lau urteetarako.

Eskatutako esku-hartze bakoitzeko, dagokion lan-partea beteko da; parte horretan, emandako zerbitzua, gorabeheraren arrazoia eta instalatutako materialak edo ordezko piezak jasoko dira.

Berme-aldia amaitu ondoren eta eskainitako proiektua behar bezala egikaritu dela egiaztatu denean, jarritako fidantza itzuli egingo da.

4.5 Lizentziak

Behar izanez gero, beharrezkoak diren *software*aren eta *firmware*aren eguneraketak egiteaz ere arduratuko da, instalatutako ekipoen prestazioak eguneratuta izateko berme-aldiaren azken egunean. Berme-aldia bukatzen denean hori egiten ez bada, Legebiltzarrak esleipendunari kobratuko dio aldi horretan egin ez diren beharrezko eguneraketen kargua.

Berme-aldia amaitu ondoren eta instalazioak behar bezala funtzionatzen duela egiaztatu denean, jarritako fidantza itzuli egingo da.

4.6 Egikaritze-baldintzak

Lehendik dauden elementuak kendu aurretik, horiek testatzeko eta horien funtzionamendua onartzeko ekipamendua instalatuko da. Alderdirik kritikoenetan probak gainditu ondoren, horiek ezartzeko aukera egongo da.

Lehendik dauden ekipoak kentzen badira, ekipoen zerrenda emango zaio Legebiltzarrari; zerrenda horretan zehaztuko dira unitateen kopurua, mota, marka eta modeloa, baita inbentarioko zenbakia ere, kenduko diren ekipoetan azaltzen baldin bada.

4.7 Instalazioa jasotzeko entregatu beharreko dokumentazioa

Behin instalazioa bukatuta, lizitatzaileak proposatutako funtzionamendu-probak eta prestakuntza-planean proposatu dituen ikastaroak eginda, instalazioa jasoko da.

Hori eraginkorra izan dadin, esleipendunak ondoko dokumentazioa entregatuko du, gutxienez:

1. Egindako kanalizazioen trazaduren *as-built* planoak (dwg eta pdf formatuak). Horretarako, Legebiltzarrak eraikinaren plano gaurkotuak emango ditu, .*dwg formatuan.
2. Instalatutako ekipoen eskemak, ekipoak eta banaketa-lineak behar bezala identifikatuta (dwg eta pdf formatuak).
3. Ekipo bakoitzari dagozkion fitxa teknikoak eta erabiltzailearen gidaliburuak, behar bezala ordenatuta, antolatuta eta dagokion aurkibidearekin.
4. Egindako proben protokoloa, horiek identifikatuta, eta egindako proben emaitza.
5. Datuen kableatu-sarearen ziurtagiria.
6. Proposatutako prestakuntza-planean entregatutako dokumentazioa.
7. Interesekotzat jotzen dituen beste batzuk.

Aurkeztutako dokumentazioak ez baditu Legebiltzarreko teknikariek eskatutako gutxienekoak betetzen, edo hori osatu behar bada, esleipendunak eskatzen zaizkion aldaketak eta gehikuntzak egin beharko ditu.

5 ESKAINTZA AURKEZTEA

5.1 Kuantifikatzeko balio-judizio baten mende dauden irizpideak

Lizitatzaileek memoria teknikoa erantsiko dute, proposatutako materiala behar bezala ebaluatzeko aukera emango duen informazio teknikoa bilduz. Eskakizun hori ez betetzea arrazoi nahikoa izan daiteke eskaintza kontuan ez hartzeko.

Memoria tekniko bat prestatuko da, guztira 35 A4 orri eta beharrezkoa bada, 4 A3 orri, sistemaren deskribapena, aurreikusitako soluzioak eta proposatutako banaketa-eskemak jasoz. Balorazio teknikorako, lizitatzaile bakoitzak atal honetan deskribatutakoaren arabera aurkeztutako dokumentazioa besterik ez da kontuan hartuko.

Lizitatzaileen proposamen teknikoak argi eta garbi adierazi beharko du PTBA honetan deskribatutako eskakizunak, espezifikazio teknikoak, baldintza orokorrak eta funtzionalitateak betetzen direla, eta xehetasun osoz zehaztuko ditu ekipoak egoki instalatzeko eta erabiltzeko behar diren baldintza teknikoak: hardwarea, softwarea, elikadura elektrikoa, ingurugiroa, hainbat eratako osagarriak, agiriak, prestakuntza eta abar.

Proposamen teknikoetan, eskainitako ekipoei buruzko nahikoa informazio teknikoa sartuko dute, horiek egokiro ebaluatzeko aukera izateko. Horretarako, eskainitako ekipoen markak eta modeloak adieraziko dira, fabrikatzailearen informazioa erantsiz, horiek egokiro ebaluatzeko aukera izateko. Ekipoei buruzko informazioa memoria teknikoaren eranskin gisa entregatuko da, behar bezala ordenatuta eta indizatuta, ekipoen ezaugarri teknikoak erraz aurkitzeko moduan. Eranskin horren orrialdeak ez dira zenbatuko memoria teknikorako ezarritako gehienekoan.

MEMORIA TEKNIKOA

Eskaintza teknikoak, gutxienez, ondoko puntuak hartuko ditu:

1) PROPOSATUTAKO SISTEMAK ETA INSTALAZIOA OSATZEN DUTEN ELEMENTUAK

- Memoria, sistemen funtzionamendua azalduz, baldintzen agiria betetzen dela eta horrekiko izan daitezkeen aldeak adieraziz. Batzordeen aretoetako prentsako besaulkietarako proposatutako sistemaren deskribapena.
- Proben protokoloa, instalazioa amaitzean, entregatu aurretik egin beharrekoa.
- Diagrama(k), aurreikusitako banaketa-soluzioarekin, argi eta garbi adieraziz proposatzen diren ekipoak eta instalazioa.

- Eguneratze-lizentziak behar dituzten **ekipoak** edo softwarea, eta lizentzia horiek urteko kostua duten ala ez (lizentzia horien prezioari buruzko aipamenik egin gabe). Lizentzien zerrenda erantsiko da, guztira zenbat diren eta zer ekipori dagozkien adierazita.

2) ESKATUTAKOAZ GAIN ESKAINITAKO ERREDUNDANTZIA OSAGARRIA

Agiriak jasotzen du beharrezkoa dela *switch* gehigarri bat izatea, erreserbakoa. Atal honetan deskribatu egingo dira lizitatzaileak audio-banaketarako zerbitzuan etenik izango ez dela bermatzeko proposatzen dituen beste erredundantzia batzuk.

3) PLANGINTZA ETA METODOLOGIA

- **Memoria**, instalazioa esleitzen denetik bukatzen den arte egin beharreko jardueren **lan-metodologiarekin**, aipamen berezia eginez desmuntatze- eta muntatze-lanei buruz, baita mugarri bereziei buruz ere.

  Instalazioa gauzatzeko aurreikusitako epea adierazi beharko da (edozein kasutan, irailaren 15a baino lehen bukatuta egon beharko du), eta lizitatzaileak instalazioa data hori baino lehen amaituta egoteko proposatzen duen epea betetzeko hartu beharreko neurriak eta bitartekoak adierazi beharko dira. "Gauzatzeko epeak" atalean azaldutakoa ere kontuan hartu beharko da.

4) PROPOSATUTAKO SOLUZIOAREN ESTETIKA

- **Deskribatu egingo da** instalazioaren elementuentzako aurreikusitako soluzio estetikoa, bereziki nabarmenduz ikusgai eta gune publikoetan daudenak. Proposatutako soluzioen kalitateak, irudiak, krokisak eta eskemak erantsi ahal izango dira.

5) PROPOSATZEN DEN PRESTAKUNTZA

- Eusko Legebiltzarreko mantentze-teknikariei funtzionamenduaren, ekipoen eta programazioaren gainean azalpenak emateko pentsatutako **prestakuntza-plana.** Prestakuntza horren alderdiak zehaztuko dira.

FITXA TEKNIKOEN ERANSKINA

Memoria teknikorako zehaztutako orriez gain, eranskin gehigarri bat entregatuko da. Eranskin horren orri-kopurua ez da zenbatuko memoriarako eskatutako orri-kopuru osoaren barruan. Memorian azaldutakoa argitzeko balio duen informazioa sartu ahal izango da bertan:

- Proposamena osatzen duten **elementuen zerrenda eta kopurua.** Zerrenda horretan ez da prezioei edo eskaintza ekonomikoari buruzko aipamenik egingo. **Erreferentzia ekonomiko orok lizitaziotik behin betiko baztertzea ekarriko du.**
- Instalazioa egiteko proposatutako material guztiaren **espezifikazio teknikoen liburuxkak**.
- **Lizitatzaileak interesekotzat jotzen dituen beste batzuk.**

Eskaintza bakoitzaren baldintza teknikoak doitzeko, lehiaketa honen xedea hobeto betetzea bermatzearren, lizitatzaileak oinarri hauetan proposatutako aukerez gain aukera gehigarriak aurkeztu ahal izango ditu bere eskaintzan, "Proposatutako sistemak" atalaren barruan.

Eusko Legebiltzarrak aukera horiek baliatu ahal izango ditu instalazioa behar bezala konfiguratzeko, oinarrizko eskaintzaren osagaiak beste batzuez ordezteko edo zenbait ekipamenduri hasieran lehiaketa honetan eskatutako prestazioak baino handiagoak diren prestazioak emateko, betiere lehiaketa honetarako ezarritako gehienezko prezioaren barruan.

5.2 Formulak aplikatuz automatikoki baloratzeko moduko irizpideak

Lizitatzaileak aurkeztutako eskaintzaren aurrekontu osoa adieraziko da.

Behin kontratua esleituta, enpresa esleipendunak aurrekontu banakatua aurkeztuko du, unitate bakoitzari dagozkion neurketekin eta unitateko prezioekin. Aurrekontu honen zenbateko osoak bat etorri beharko du, logikoki, aurkeztutako aurrekontu osoarekin.

6 BALORAZIOA EGITEKO ETA BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK

Kontratazio-organoak, esleipena egin aurretik, beharrezkotzat jotzen dituen irizpen eta txosten guztiak jaso ahal izango ditu.

Balorazioa, **gehienez, 155 puntukoa** izango da, eransten den haztapenaren arabera:

Aplikatzerakoan balio-judizioak egiteko eskatzen duten irizpideak.... 75 puntu
Formulak aplikatuz ebaluatu daitezkeen irizpideak .....80 puntu

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 146.3 artikuluaren arabera, **40 puntukoa da** eskaintza teknikoak (balio-judizioaren bidez ebaluatu daitezkeen irizpideak jasotzen dituenak) **lortu beharreko** gutxieneko puntuazio-atalasea. Proposamenetako batek ez badu puntuazio hori lortzen, lizitaziotik kanpo gelditu ko da eta, beraz, formulak aplikatuz ebaluatu daitezkeen irizpideei dagokion gutun-azala ez da irekiko, ez eta baloratuko ere.

6.1 Aplikatzerakoan balio-judizioak egiteko eskatzen duten irizpideak

PROPOSAMEN TEKNIKOA: 75 puntu

Aurkeztu beharreko memoria deskribatzen duen "Eskaintza aurkeztea" atalean adierazitako maximotik gorako dokumentazioa ez da kontuan hartuko balorazioa egiteko garaian.

Memoria ebaluatzeko, ondorengo irizpide teknikoak eta gehieneko puntuazioak hartuko dira kontuan:

1) Proposatutako sistemak eta instalazioa osatzen duten elementuak...40

2) Instalazioaren erredundantzia gehigarriak..... 15
3) Plangintza eta metodologia..... 7
4) Soluzioaren estetika 5
5) Eman beharreko prestakuntza 8

Balio-judizioak egiteko eskatzen duten irizpideei dagokien gehieneko puntuazioa, beraz, 75 puntu izango dira.

Kontratu honen xedera egokitzeko zehaztuta eta xehatuta dauden moduari begira eta gainerako lizitatzaileek aurkeztutakoekin **alderatuz** ebaluatuko dira proposamenak. Puntuazioak, gehienez, bi dezimal izan ditzake.

6.2 Formulak aplikatuz automatikoki baloratzeko moduko irizpideak

PREZIOA: 80 puntu

Erreferentzia gisa hartuko da eskaintza guztien artean preziorik baxuena duena, eta horri gehieneko puntuazioa emango zaio. Gainerakoak baloratzeko, alderantzizko proportzioa erabiliko da, honako formula hau aplikatuz:

$$P = R \times \frac{Min.}{Eskain.}$$

P: Lortutako puntuazioa
R: Apartatu honi dagokion gehieneko puntuazioa (80)
Min: Eskaintza ekonomiko baxuenaren zenbatekoa
Eskain.: Baloratzen den eskaintzaren zenbatekoa

6.3 Berdinketa hausteko irizpideak

Kontratua esleitzeko irizpideak aplikatu ondoren berdinketarik badago zenbait eskaintzaren artean, honako irizpide sozial hauek (adierazitako hurrenkeran) aplikatuko dira berdinketa ebazteko, betiere eskaintzak aurkezteko epea amaitzeko unea kontuan hartuta:

1) Plantillan desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena edukitzea; berdinketa gertatuz gero, plantillan desgaitasuna duten langile finko gehien edukitzea edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien edukitzea.
2) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.
3) Plantillan enplegatutako emakumeen ehuneko handiena duen enpresa.
4) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa hautsi ez bada.

Beren kargura enplegatuak dituzten langile autonomoen kasuan, langile autonomo horiek berak ere sartuko dira langileen zenbaketan.

7 GEHIENEKO AURREKONTUA

Honako hau izango da proiektua idazteko eta obrak zuzentzeko lizitazio-aurrekontua:

100.000 € +21.000 € BEZagatik = 121.000 €

Prezio horiek gehienekoak dira izatez eta, beraz, prezio horiek gainditzen dituzten eskaintzak baztertu egingo dira.

Aurrekontuaren barruan egongo dira eskainitako elementuen aseguruak, garraioa, hustuketa eta muntaketa, baita zerbitzutik kanpo geratuko den instalazio guztia desmuntatzea ere.

Eskaintza ekonomikoak ezin izango du gainditu kontrata bidez gauzatzeko ezarritako gehieneko aurrekontua, eta kontratu honetarako **121.000** eurokoa da (BEZa barne).

Proposamena baldintza administratiboen agiriko eranskinetan jasotako eredura egokituko da.

Administrazio-dokumentazioarekin batera eta kontratua sinatzerakoan, esleipendunak bere eskaintzaren banakapena aurkeztu beharko du, unitateekin eta unitate-prezioekin, kontuan hartu duen elementu, partida edo instalazio bakoitzeko.

Adierazitako prezioek barne hartuko dituzte gastu orokor guztiak eta etekin industriala, zergak, aseguruak, garraioa eta proposatutako sistema giltza eskuan hornitzeko eta zerbitzutik kanpo geratuko diren instalazioak kentzeko egin beharreko lanari buruzko beste edozein kostu ere.

Informazio gehigarri gisa, eta informazio gisa soilik, bere memoria teknikoan jasotako beharrezko lizentzien zerrenda bera aurkeztuko du, balioetsita, urteko edo aldizkako kostuarekin.

8 PRESTAZIOA ORDAINTZEA

Esleipendunak gehienez bi faktura aurkeztu ahal izango ditu; bat, instalazioaren % 40 eginda dagoenean, aurkeztutako aurrekontuaren % 40koa gehienez, eta gainerako % 60a (edo txikiagoa, lehen fakturan % 40 fakturatu ez bada) instalazioa jasotzean.

Obrak amaitzean harrera-akta egin ondoren, esleipendunak aurkeztutako eskaintzaren zenbatekoaren faktura aurkeztuko du, edo, bestela, geratzen denarena, aldez aurretik zati bat fakturatu badu. Ordainketak Eusko Legebiltzarraren 2021. urteko aurrekontuko 62301 partidaren kargura egingo dira.

Epemugak fakturaren datatik 30 egunera izango dira.

9 EGIKARITZE BALDINTZAK

Enpresa esleipendunak, eta azpikontratazioa izanez gero, azpikontratistak, bete egin beharko dituzte indarrean dauden eta laneko, Gizarte Segurantzako eta laneko segurantza eta osasuneko arloan aplikatzekoak diren lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapenak.

Esleipendunak langileari ordaindu beharko dio, kontratua gauzatzen den bitartean, haren lanbide-kategoriaren arabera aplikagarri zaion hitzarmen kolektiboan jasotako soldata, eta ordaintzekoa den soldata ezingo da, inola ere, soldata hori baino txikiagoa izan; halaber, lan-istripuei dagokien guztia haren erantzukizun esklusibokoa da.

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS

DISTRIBUCIÓN DIGITAL DE AUDIO MEDIANTE PROTOCOLOS DANTE

EXP.: ELPV-1500-21

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria – Gasteiz
Tel.: 945 00 40 00 • Fax: 945 13 54 06 • www.legebiltzarra.eus

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS

DISTRIBUCIÓN DIGITAL DE AUDIO MEDIANTE PROTOCOLOS DANTE

1 OBJETO 1

2 ALCANCE DE LOS TRABAJOS 1

3 ESPECIFICACIONES TÉCNICAS 3

4 CONSIDERACIONES, REQUISITOS Y PLAZOS 12

5 PRESENTACIÓN DE LA OFERTA 15

6 CRITERIOS DE VALORACIÓN Y DESEMPATE 17

7 PRESUPUESTO MÁXIMO 19

8 ABONO DE LA PRESTACIÓN 19

9 CONDICIONES DE EJECUCIÓN 19

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria – Gasteiz

Tel.: 945 00 40 00 • Fax: 945 13 54 06 • www.legebiltzarra.eus

1 OBJETO

La Institución Eusko Legebiltzarra-Parlamento Vasco tiene la necesidad de distribuir los audios generados por los diferentes espacios de la sede parlamentaria: Salón de Plenos, salas de comisiones, de ponencias, salas de prensa, sala Tomás Moro, además de ofrecerlos a los medios de comunicación realizando las conmutaciones necesarias para que los resultados sean de gran calidad.

Los sistemas de audio existentes son analógicos y varían desde sistemas pequeños para pequeños lugares y salas de conferencias hasta eventos con público, donde se necesitan conexiones entre micrófonos, mezcladores, procesadores, amplificadores y PCs. Tradicionalmente, esto significaba tirar largos cables analógicos que son pesados y voluminosos para maniobrar y dedicados solo a un tipo de señal dirigida a un solo dispositivo cada vez.

El objeto de este pliego es definir los criterios y prescripciones técnicas para migrar todos los sistemas de audio estéreo analógicos: original y traducido, existentes en el Parlamento Vasco, a sistemas digitales, basados en tecnología Dante.

Dante está basado en tecnología de red IP estándar y es capaz de manejar un gran número de canales con alta calidad y baja latencia. También permite redundancia para que la fiabilidad sea extremadamente alta.

Con el sistema Dante se reemplazaría la instalación analógica por una red informática gestionable Gigabit Ethernet, posibilitando una distribución sencilla de un gran número de canales de audio por cableado Ethernet, para poder suministrar señales de audio de óptima calidad, sin las afecciones de interferencias, atenuaciones y caídas de voltaje que pueda tener una solución analógica.

Con este sistema, todas las conexiones se administrarán por software, haciendo los enrutamientos rápidos y fiables. Al compartir todos los dispositivos la misma red, las señales se podrán enviar entre cualquier dispositivo, sin importar dónde estén ubicados.

2 ALCANCE DE LOS TRABAJOS

Eusko Legebiltzarra distribuye audio estéreo balanceado, original y traducido.

